

Convención para la Prevención y la Sanción del Delito de Genocidio

Adoptada y abierta a la firma y ratificación, o adhesión, por la Asamblea General en su resolución 260 A (III), de 9 de diciembre de 1948

Entrada en vigor: 12 de enero de 1951, de conformidad con el artículo XIII

Las Partes Contratantes,

Considerando que la Asamblea General de las Naciones Unidas, por su resolución 96 (I) de 11 de diciembre de 1946, ha declarado que el genocidio es un delito de derecho internacional contrario al espíritu y a los fines de las Naciones Unidas y que el mundo civilizado condena,

Reconociendo que en todos los períodos de la historia el genocidio ha infligido grandes pérdidas a la humanidad,

Convencidas de que para liberar a la humanidad de un flagelo tan odioso se necesita la cooperación internacional,

Conviene en lo siguiente:

Artículo I

Las Partes contratantes confirman que el genocidio, ya sea cometido en tiempo de paz o en tiempo de guerra, es un delito de derecho internacional que ellas se comprometen a prevenir y a sancionar.

Artículo II

En la presente Convención, se entiende por genocidio cualquiera de los actos mencionados a continuación, perpetrados con la intención de destruir, total o parcialmente, a un grupo nacional, étnico, racial o religioso, como tal:

- a) Matanza de miembros del grupo;
- b) Lesión grave a la integridad física o

Genozidio-delitua prebenitu eta zehatzeko Konbentzioa

Biltzar Orokorrak onetsi eta sinadura eta berrespenerako edo atxikimendurako irekia, 1948ko abenduaren 9ko 260 A (XX) ebazpenean

Indarrean jartzea: 1951eko urtarrilaren 12an, XIII. artikuluekin bat etorritz.

Alderdi kontratugileek

Kontuan hartuta Nazio Batuen Biltzar Orokorrak, 1946ko abenduaren 11ko 96 (I) ebazpenean adierazi zuela genozidioa nazioarteko zuzenbide-delitua dela, Nazio Batuen espirituaren eta helburuen aurka doana eta gizateriak gaitzetsi egiten duela,

Aitortuz historian zeharreko aldi guztietan, genozidioak zenbat kalte eragin dion gizateriari,

Jakitun izanik gizateria hain zigor higuinetik askatzeko beharrezkoa dela nazioarteko lankidetzara,

Hurrengoa hitzartu dute:

I. artikulua

Alderdi kontratugileek baieztatzen dute genozidioa, bake nahiz gerra garaian eginga izan, nazioarteko zuzenbide-delitua dela; hartara, haiek konpromisoa hartzen dute halakoa prebenitzeko eta zigortzeko.

II. artikulua

Konbentzio honetan, genozidiotzat hartzen da jarraian aipatuko diren egintzetatik edozein, horiek egiten direnean nazio-, etnia-, arraza- edo erlijio-talde bat, oso-osorik edo zati batean, suntsitzeko asmoarekin.

- a) Talde bateko kideak hiltzea;
- b) Talde bateko kideen osotasun fisiko

- mental de los miembros del grupo;
- c) Sometimiento intencional del grupo a condiciones de existencia que hayan de acarrear su destrucción física, total o parcial;
 - d) Medidas destinadas a impedir los nacimientos en el seno del grupo;
 - e) Traslado por fuerza de niños del grupo a otro grupo.

Artículo III

Serán castigados los actos siguientes:

- a) El genocidio;
- b) La asociación para cometer genocidio;
- c) La instigación directa y pública a cometer genocidio;
- d) La tentativa de genocidio;
- e) La complicidad en el genocidio.

Artículo IV

Las personas que hayan cometido genocidio o cualquiera de los otros actos enumerados en el artículo III, serán castigadas, ya se trate de gobernantes, funcionarios o particulares.

Artículo V

Las Partes contratantes se comprometen a adoptar, con arreglo a sus Constituciones respectivas, las medidas legislativas necesarias para asegurar la aplicación de las disposiciones de la presente Convención, y especialmente a establecer sanciones penales eficaces para castigar a las personas culpables de genocidio o de cualquier otro de los actos enumerados en el artículo III.

Artículo VI

Las personas acusadas de genocidio o de uno cualquiera de los actos enumerados en el artículo III, serán juzgadas por un tribunal competente del Estado en cuyo territorio el acto fue

- edo mentalari lesio larriak eragitea;
- c) Taldea, hala nahita, ezartzea, oso-osorik edo zati batean, suntsiketa fisikoa ekarriko dion bizona-baldintzen menpean;
 - d) Taldearen barruan jaiotzak eragozteko neurriak ezartzea;
 - e) Haurrak halabeharrez lekualdatzea talde batetik beste talde batera.

III. artikulua

Ondorengo egintzak zigortu egingo dira:

- a) Genozidioa;
- b) Genozidioa egiteko elkartzea;
- c) Genozidioa egiteko zirikatzea, zuzenean eta jendaurrean;
- d) Genozidioa egiteko saiakuntza;
- e) Genozidioa egiteko sopikuntza,

IV. artikulua

Genozidioa edo III. artikuluan zerrendatutako beste egintzetatik edozein egin duten pertsonak zigorra jasoko dute, pertsona horiek agintariak, funtzionarioak edo partikularrak izanik ere.

V artikulua

Alderdi kontratugileek konpromisoa hartzen dute, kasuan kasuko konstituzioen arabera, beharrezko legegintza-neurriak hartzeko konbentzio honen xedapenen aplikazioa ziurtatzeko, eta bereziki, zigor-zehapen eragingarriak ezartzeko, genozidioa edo III. artikuluan zerrendatutako egintzetatik edozein egiteagatik pertsona errudunek zigorra jaso dezaten.

VI. artikulua

Genozidioa edo III. artikuluan zerrendatutako egintzetatik edozein egiteagatik akusatutako pertsonak zein estatuko lurraldean egintza egin eta estatu horretako auzitegi eskudunak

cometido, o ante la corte penal internacional que sea competente respecto a aquellas de las Partes contratantes que hayan reconocido su jurisdicción.

Artículo VII

A los efectos de extradición, el genocidio y los otros actos enumerados en el artículo III no serán considerados como delitos políticos.

Las Partes contratantes se comprometen, en tal caso, a conceder la extradición conforme a su legislación y a los tratados vigentes,

Artículo VIII

Toda Parte contratante puede recurrir a los órganos competentes de las Naciones Unidas a fin de que éstos tomen, conforme a la Carta de las Naciones Unidas, las medidas que juzguen apropiadas para la prevención y la represión de actos de genocidio o de cualquiera de los otros actos enumerados en el artículo III.

Artículo IX

Las controversias entre las Partes contratantes, relativas a la interpretación, aplicación o ejecución de la presente Convención, incluso las relativas a la responsabilidad de un Estado en materia de genocidio o en materia de cualquiera de los otros actos enumerados en el artículo III, serán sometidas a la Corte Internacional de Justicia a petición de una de las Partes en la controversia.

Artículo X

La presente Convención, cuyos textos inglés, chino, español, francés y ruso serán igualmente auténticos, llevará la fecha de 9 de diciembre de 1948.

Artículo XI

La presente Convención estará abierta hasta el 31 de diciembre de 1949 a la

epaituko ditu, edo nazioarteko zigor gorteak, horretarako eskumena badu, bere jurisdikzioa aitortu duten alderdi kontratugileei dagokienez.

VII. artikulua

Estradizio ondorioetarako, genozidioa eta III. artikuluan zerrendatutako beste egintzak ez dira delitu politikotzat hartuko.

Kasu horretan, alderdi kontratugileak konpromisoa hartzen dute estradizioa emateko euren legeriaren eta indarrean dauden itunen arabera,

VIII. artikulua

Alderdi kontratugile orok Nazio Batuen organo eskudunengana jo ahal izango du, horiek har ditzaten, Nazio Batuen Gutunarekin bat etorri, egokiak irizten zaizkien neurriak, genozidio-egintzak edo III. artikuluan zerrendatutako beste egintzak prebenitzeko eta zigortzeko.

IX. artikulua

Alderdi kontratugileen arteko eztabaidak, konbentzio honen interpretazioari, aplikazioari edo betetzeari buruzkoak, barne hartuta estatu baten erantzukizunari dagozkionak ere, dela genozidio arloan, dela III. artikuluan zerrendatutako beste edozein egintzen esparruan, Nazioarteko Justizia Gortearen menpe geratuko dira, eztabaidaren alderdietako batek hala eskatuta.

X. artikulua

Konbentzio honek 1948ko abenduaren 9ko data izango du; berebat, konbentzioaren testuak kautoak izango dira, ingelesez, txineraz, espainieraz, frantsesez eta errusieraz egindakoak.

XI. artikulua

Konbentzio hau 1949ko abenduaren 31a baino lehen sinatu ahal izango dute

firma de todos los Estados Miembros de las Naciones Unidas y de todos los Estados no miembros a quienes la Asamblea General haya dirigido una invitación a este efecto.

La presente Convención será ratificada y los instrumentos de ratificación serán depositados en la Secretaría General de las Naciones Unidas.

A partir del 1.º de enero de 1950, será posible adherir a la presente Convención en nombre de todo Estado Miembro de las Naciones Unidas y de todo Estado no miembro que haya recibido la invitación arriba mencionada.

Los instrumentos de adhesión serán depositados en la Secretaría General de las Naciones Unidas.

Artículo XII

Toda Parte contratante podrá, en todo momento, por notificación dirigida al Secretario General de las Naciones Unidas, extender la aplicación de la presente Convención a todos los territorios o a uno cualquiera de los territorios de cuyas relaciones exteriores sea responsable.

Artículo XIII

En la fecha en que hayan sido depositados los veinte primeros instrumentos de ratificación o de adhesión, el Secretario General levantará un acta y transmitirá copia de dicha acta a todos los Estados Miembros de las Naciones Unidas y a los Estados no miembros a que se hace referencia en el artículo XI.

La presente Convención entrará en vigor el nonagésimo día después de la fecha en que se haga el depósito del vigésimo instrumento de ratificación o de adhesión.

Toda ratificación o adhesión efectuada posteriormente a la última fecha tendrá efecto el nonagésimo día después de la

Nazio Batuen estatu kide guztiek edota ondorio horretarako Biltzar Orokorra zein estatari gonbitea igorri eta horrek, nahiz eta erakundearen kidea ez izan.

Konbentzio hau berretsiko da eta berrespen-instrumentuak Nazio Batuen Idazkaritza Orokorrean gordailutuko dira.

1950eko urtarrilaren 1etik aurrera, Konbentzio honi Nazio Batuen estatu kide ororen izenean atxikimendua eman ahal izango da eta, halaber, kide ez den estatu ororen izenean, horretarako lehenago aipatu gonbitea jaso badu.

Berrespen-instrumentuak Nazio Batuen Idazkaritza Orokorrearen esku utziko dira hark gordailutu ditzan.

XIII. artikulua

Alderdi kontratugile orok, edozein unetan, Nazio Batuen Idazkari Nagusiari zuzendutako jakinarazpenaren bitartez, zabal dezake konbentzio honen aplikazioa, alderdiak zein lurralderen kanpo-harremanen ardura izan eta lurralde horietako guztietara edo bakan batera.

XIII. artikulua

Lehenengo hogeit berrespen- edo atxikimendu-instrumentu gordailutu diren datan, Idazkari Nagusiak akta egingo du eta horren kopia bat igorriko die Nazio Batuen estatu kide guztiei eta XI. artikulua aipatu eta kide ez diren estatuei ere.

Konbentzio hau indarrean jarriko da berrespen- edo atxikimendu-instrumentuetatik hogeigarrena zein datatan gordailutu eta hurrengo laurogeita hamargarren egunean.

Azken data baino geroago egindako berrespen edo atxikimendu orok eragina izango du berrespen- edo

fecha en que se haga el depósito del instrumento de ratificación o de adhesión.

Artículo XIV

La presente Convención tendrá una duración de diez años a partir de su entrada en vigor.

Permanecerá después en vigor por un período de cinco años; y así sucesivamente, respecto de las Partes contratantes que no la hayan denunciado por lo menos seis meses antes de la expiración del plazo.

La denuncia se hará por notificación dirigida al Secretario General de las Naciones Unidas.

Artículo XV

Si, como resultado de denuncias, el número de las Partes en la presente Convención se reduce a menos de dieciséis, la Convención cesará de estar en vigor a partir de la fecha en que la última de esas denuncias tenga efecto.

Artículo XVI

Una demanda de revisión de la presente Convención podrá ser formulada en cualquier tiempo por cualquiera de las Partes contratantes, por medio de notificación escrita dirigida al Secretario General.

La Asamblea General decidirá respecto a las medidas que deban tomarse, si hubiere lugar, respecto a tal demanda.

Artículo XVII

El Secretario General de las Naciones Unidas notificará a todos los Estados Miembros de las Naciones Unidas y a los Estados no miembros a que se hace referencia en el artículo XI:

- a) Las firmas, ratificaciones y adhesiones recibidas en aplicación del artículo XI;
- b) Las notificaciones recibidas en aplicación del artículo XII;

atxikimendu-instrumentua zein datatan gordailutu eta hurrengo laurogeita hamargarren egunean.

XIV. artikulua

Konbentzio honek iraungo du indarrean jarri eta hurrengo hamar urtean .

Harik aurrera, beste bost urteko aldi jarraituko du indarrean; eta ondoko ondoko epe berdinetan ere, gutxienez, epea agortu baino sei hilabete lehenago berori salatu ez duten alderdi kontratugileei dagokienez.

Salaketa Nazio Batuen Idazkari Nagusiari zuzendutako jakinarazpenaren bitartez egingo da.

XV. artikulua

Salaketen emaitzen ondorioz, konbentzio honen alderdiek hamasei baino gutxiago izatera iristen bada, konbentzioa indargabetu egingo da salaketa horietatik azkenak zein datatan eragina izan eta data horretatik aurrera.

XVI. artikulua

Edozein unetan eta edozein alderdi kontratugilek eska dezake konbentzio hau berrikusteko, Idazkari Nagusiari idatziz zuzendutako jakinarazpenaren bitartez.

Biltzar Orokorrak, halakoa bidezkoa bada, erabakiko ditu hartu beharreko neurriak, eskaera horri dagokionez.

XVI. artikulua

Nazio Batuen Idazkari Nagusiak jakinaraziko dizkie Nazio Batuen kide guztiei eta XI. artikulua aipatu eta kide ez diren estatuei:

- a) XI. artikulua araberako jaso dituen sinadurak, berrespenak eta atxikimenduak;
- b) XII. artikulua araberako jasotako jakinarazpenak;

- c) La fecha en la que la presente Convención entrará en vigor en aplicación del artículo XIII;
- d) Las denuncias recibidas en aplicación del artículo XIV;
- e) La abrogación de la Convención, en aplicación del artículo XV;
- f) Las notificaciones recibidas en aplicación del artículo XVI.

Artículo XVIII

El original de la presente Convención será depositado en los archivos de las Naciones Unidas.

Una copia certificada será dirigida a todos los Estados Miembros de las Naciones Unidas y a los Estados no miembros a que se hace referencia en el artículo XI.

Artículo XIX

La presente Convención será registrada por el Secretario General de las Naciones Unidas en la fecha de su entrada en vigor.

- c) XIII. artikulua arabera, konbentzio hau indarrean jarriko den data;

d) XIV. artikulua arabera jasotako salaketak.

e) XV. artikulua arabera, konbentzioaren indargabetzea;

b) XVI. artikulua arabera jasotako jakinarazpenak;

XVIII. artikulua

Jatorrizko konbentzio hau Nazio Batuen artxiboetan gordailutuko dira.

Kopia ziurtatua igorriko zaie Nazio Batuen estatu kide guztiei eta XI. artikulua aipatu eta kide ez diren estatu guztiei.

XIX. artikulua

Konbentzio hau Nazio Batuen Idazkari Nagusiak erregistratuko du zein datatan indarrean jarri eta data horretan.